

# **Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Araua**

**(G.A.O. 1990ko urtarrilaren 22koa)**

## **23. artikulua. Sortzapena.**

1. Heriotza dela-eta egiten diren eskurapenetan eta bizi aseguruetan, kausagile edo aseguratuaren heriotza egunean sortuko da zerga edo, bestela, Kode Zibileko 196. artikulua arabera, absentearen heriotza aitorenak indarra hartzen duenean.

Orainaldian eragina duen oinordetza-ituna izanez gero, zerga kausatzailea bizi delarik sortuko da, eskualdaketa gertatzen denean.

2. "Inter vivos" irabazizko transmisioetan, egintza nahiz kontratua burutu edo egiten den egunean sortuko da Zerga.

3. Baldintza, termino, fideikomiso edo bestelako edozein muga dagoelako eraginkortasuna etenik duen ondasun eskurapen oro, muga horiek desagertzen diren egunean egintzat joko da.

## **26. artikulua. Zatiketa eta adjudikazio soberakinak.**

1. Heriotzaren ziozko oinordetzetan, interesatuek egiten dituzten zatiketa eta adjudikazioak edozein direlarik, zergaren eraginetarako oinordetza erregulatzen duten arauak aplikatuz ateratzen den berdintasan edo proportzionaltasuna errespeto osoz egindakotzat joko dira, ondasunak lurralde baldintzagaratik edo beste edozein arrazoiengatik zerga ordaintzeari atxikiak egon ala ez eta, ondorioz, baloreak egiaztatzerakoan sor litezkeen gehikuntzak eskuratzailerik edo oinordeko desberdinen artean hainbanatuko dira.

2. Egiaztatzean balio gehikuntza gertatzen deneko ondasunak eta ez atxekipena aplikatu behar zaizkienak, testamentugileak jakin bati espreski atxikituko balio edo herentzia ez den kontzeptuan adjudikatuko balira, gehikuntzak nahiz murrizketak aipatu ondasunak eskuratzen dituenari bakarrik egokituko zaizkio.

3. Oinordekoek nahiz legatadunek herentzia tituluarik dagokionez egindako esleipenetan, aitortutako balioaren arabera desberdintasunak daudenean esleipen soberakinak likidatuko dira; Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarritako arauari jarraituta; oinordeko nahiz legatadun bati esleitutakoaren balio frogatua bere tituluararen arabera egokituko zaion balioaren %50a baino gehiago denean ere esleipen soberakinak likidatuko dira, aitortutako balioaren Ondare Garbiaren gaineko Zergaren arauak aplikatuz aterako liratekeenak berdinak edo handiagoak diren kasuan ezik.

Ez dute esleipen soberakinik ekarriko ezkontide alargunaren, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotako izatezko bikote lagunaren edo, bestela, kuota partearen, ohiko etxebizitzaren edo baserriaren eta haien jabetzen eta lur erantsien oinordeko edo legatadun baten edo batzuen alde egiten diren esleipenek, haiek herentzia osoaren aldean duten balioa handiagoa denean esleipendunaren herentzia-kuota baino.